

Tokiko Agenda 21 Batzordearen 2018ko apirilaren 19ko bileraren ondorio nagusien sintesia

Gai hauek aztertu dira: jaiegunen egutegia eta egin beharreko eginkizunak; edukiontzien garbiketa eta mantentzea; edukiontzien aurreikuspena eta hornidura; edukiontzien ezaugarri teknikoaren analisiaren ondorioak; Basauriko Garbiguneko hondakin berezien biltegi mugaturako Garbikerren baimena; osoko bilkuran BFArekin egindako hitzarmenak onestea Arakaldo, Arrankudiaga, Urduña eta Orozkoko udaletako errefusaren tratamendurako; Justizia Auzitegi Nagusiaren aurrean jarritako errekurtoa; udal ordenantzari eta zerbitzuaren barne araudiari buruzko kontsulten egoera.

- **Industrialdeetan hondakinak kudeatzeko laguntza teknikoaren lehiaketa:** Laguntza teknikoari buruzko lehiaketan egoeraren inguruko informazioa eman da. Kontratazio-mahaiko hirugarren kidea izendatu da.
- **Hondakin handiak biltzeko lehiaketa:** Egungo kontratua lau hilabetez luzatzea ontzat eman da, baita prozedura irekiaren bidez lizitazio berriaren pleguak egitea ere, enplegu-zentro berezientzat edo laneratze-enpresentzat gordetakoak.
- **Tamaina handiko hondakinentzako eranskailua:** Behar ez bezala utzitako tamaina handiko hondakinentzako eranskailua ontzat eman da.
- **Etxeko olioaren gaikako bilketaren kanpaina:** Kanpainaren planteamendua ontzat eman da.
- **Kontratazioko ingurumen-klausulei buruzko jardunaldia:** Prestakuntza saio / saio informatibo bat egitea adostu da, maiatzaren 31n, 09:00etatik 11:00etara, Eskualdeko Bulegoan.
- **Figura juridikoa berrikustea:** Lanaren planteamenduaren eta laguntza teknikoko kontratazioaren inguruko informazioa eman da.
- **Berringurumena programa:** Eskualdeko Bulegoak proposamen zehatz bat aztertuko du batzordeari berau onestea proposatu baino lehen.
- **Informazioak:** Jarduketa energetikoentzako laguntzei buruzko bilera; "Aldaketa Klimatikoaren inguruko Jardunbide Egokiak Euskadin" argitaratzea.
- **Hurrengo bilerak:** SLren Batzar Nagusia: ostegunean, apirilaren 26an, 09:00etatik 11:00etara; Araudiaren eta Udal Ordenantzaren inguruko bilera: ostegunean, maiatzaren 10ean, 09:00etatik 11:00etara; Batzordea: ostegunean, maiatzaren 17an, 09:00etatik 11:00etara.